



2022ko uztailaren 6a, asteazkena

**BSko 10 atal sindikaletatik 8 ez gara enpresaren azken deialdian izan. Jakin arazi diegu negoziatio-mahai batera deitu behar gaituela.**

**Guk ez dugu patronalaren bozeramaile lanik egiten.**

BSk ez dio inongo errespetorik bere plantillari, eta hori Langileen Legezko Ordezkaritzarekiko duen harremanetan argi eta garbi agertzen da.

Azken aldian, **EKINTZA SINDIKALEKO UNITATEAREN** erreklamazioen aurrean, enpresak bilera informatibo eta antzuetara deitu gaitu, entretenituta izateko eta hutsik dauden neurriak iragartzeko. Neurri horiek ez dituzte konpontzen benetazko arazoak: lan-kargak, merkataritza-presioa, kilometraje-dieten prezioaren desoreka, erregulatu gabeko telelana, inflazioak desfasatutako soldatak eta abar.

Joan den astelehenean, uztailaren 4an, ekintzak antolatzen gaudela aurreikusi duten bakoitzean bezala, enpresak berriro ere beste denbora pasako bilera batera deitu zigun LLO osoari. Ez dute negoziatorako inongo jarrerarik erakutsi, aldiz beraien helburu bakarra gure ekintza gelditzea da. Ez dute zehazten ezta bilera deialdiaren gai zerrenda ere. Tratatu beharreko arazoan seriotasunez eta premia jabetu gabe jarraitzen dute. Beraien arabera ez dago arazorik.

Egoera lotsagarri horren aurrean, ordezkatzen ditugun langileen eta gure taldeen errespetuagatik, Ekintza Unitateko kideok ez joatea erabaki genuen. CUADROS, ordea, bai. Beren jardueraren oinarrian dauden arrazoiak edozein direla ere, erantzule bakarrak beraien dira, noski.

Ekintza Sindikaleko Batasunak argi du hobekuntzarako aldarrikapenak ez ditugula aurrera eramango Bankoari men eginez. Behin eta berriz diegu, Bankuko langileek jasaten ari diren egoera konpontzeko **NEGOZIAZIOA, AKORDIOA ETA ADOSTASUNA BEHAR DA**. Guk ez ditugu onartuko patronalak bakarka eskeinitako neurri apurrak nahiz eta sindikatu konplizeren baten laguntza izan.

Guretzat errezena izango litzateke zentzu gabeko bilera horietara joan eta gero disimulatuz esan gure lana egin dugula eta ondoren zirkular baten saldu enpresak beraien aldetik emandako lorpen txiki horiek guri esker direla. Baten batek hori egiten du. Ekintza Sindikaleko Unitateak ez du parte hartuko fraude horretan. Horretarako, erabakiak elkarrekin hartzea adostu genuen, divide y vencerás Bankoaren estrategia hankaz gora jartzeko.

Bilera horretan egon ziren sindikatu biei gogora arazi nahi diegu, langileek behar dutena lortzeko, enpresaren etengabeko estrategia geldiarazleak laguntzaile izatea ez dela egokia.

CCOO, ez badu bere jarrera aldatzen, langileen egoera larriaren errudunak izango dira.

CUADROSerri gogorazi nahi diegu, erabakiek ardura eta heldutasuna behar dutela. Ezinezkoa da igeri egitea buzti gabe.